

Beste iturrietatik

Irudi-eskemen erabilera *

William Chuckney

Irudizko istorioak eskema moduan, ikasleei laguntzeko erabil daitezke, beren testuak egin ditzaten. Hori nola egin azaltzen du William Chuckney-k, eta eskema-istorioen kontzeptua garatzeko beste bide batzuk aztertzen ditu.

Eskema-Sistema lau liburutako seriea da (1), narrazioak, solasaldiak, elkar-rizketak eta ariketak, ia oso-osorik irudi bidez ematen dituelarik. Badira irudiak eta sinboloak sarri agertzen diren aditzentzat (*begiratu* eta *erosi-rentzat*, adibidez). Irakurri 3. eskemari dagokion testua (.1), nola funtzionatzen duen ideia txiki bat izateko.

Aurkezpena

Jarri ikasleak talde txikitik eta eskaiezu 3. eskemari (.2) begiratzeko, irudi-istorio horretan Jane (J) eta Vi (V) egiten ari direna asma dezaten. Utziezu beren artean nahi bezain luze eztabaidatzen.

Gero, begiratu elkarrekin eskemari eta galdegiezu zer gertatzen ari den, horrela ateratzeko *Vi Janeren autora sartzen ari da*, edo *Viri itxaroten dago Jane*, edo *Vi hartzen ari da Jane*. Gero, galdetu norantz doazen autoz, eta ikasleak duda-mudatan baldin badaude, galdetu marra bertikalak dituzten kaxa horiei buruz. Esaiezu istorioan animaliak daudela eta galdetu ea non aurki ditzakegun basapiztiak hirian, horrela *zooan daudela* edo *zoora doazela* aterata ahal izateko. Galdetu berriro ea dakiten zer diren kaxa horiek, “kaiola” hitza ateratzeko. Gero, gezia oharterazi ikasleak, “nora” adierazten duela aterata ahal izateko (*Zoora doaz*). Galdegin zer den bigarren lerroko gezi bertikala, “non” adierazten duela ateratzeko (*Zooan daude*).

Gero, aterata (1) eta (2) sinboloen esanahiak (*erosi* eta *saldu*: (.1), eta marraztu arbelean (3) sinboloa (.1), beronek *gaizki pasatu* adierazten duela esanez ikasleei. Galdegin ea istorioan zehar nork aurkitzen duen irudi bat norbait ongi pasatzen ari dela (4) (.1) adierazten duena, eta galdetu, beren ustez, (5) (.1) sinboloa zer ote den ere (eduki). (2)

Galdetu musikaria zer tresna ari den jotzen, eta nork jotzen duen musika-

Sinboloak

3. eskemaren testua

Orain Jane Vi hartzen ari da. Elkarrekin doaz zoorra. Orain zooan daude. Batera eta bestera dabilta, animaliei begira. Orain hanburgarrak eta arto xigortua ari dira erosten. Hanburgarrak jaten ari dira eta arto pixka bat jirafari eta elefanteari ematen. Orain arrainei begira daude aquarium-ean, eta arrainak beraiei begira daude. Orain irribarre egiten diete arrainei eta arrainek ere irribarre egiten beraiei. Denak ari dira ongi pasatzen.

Bibolinjole bat bibolina jotzen ari da iturri ondoan. Jane eta Vi musika entzuten ari dira. Bibolinjolea Mozarten musika ari da jotzen. Bi lagunak dirua ematen diote bibolinjoleari. Honek irribarre egiten die bi lagunei eta "eskerrik asko" esaten die. Bi neskek "ez horregatik" erantzuten diote.

Orain zootik irteten ari dira Jane eta Vi. Etxera doaz autoz. Jane Vi etxe ondoan uzten ari da. Orain Jane bere etxera doa.

.1


-tresnaren bat ikasgelan. Galdetu ea bibolinjolea Beethoven-en musika ari den jotzen ala ez (*Ez, Mozart-ena ari da jotzen*). Eskatu ikasleek eza-gutzen eta gogoko dituzten beste musikagileren batzuen izenak esateko. Galdegin ea Jane eta Vi gozatzen ari diren ala ez musikaz, eta nola dakiten hori. Galdetu ea kalean musika jotzen duenik dagoen zuen hirian.

Adibide honekin ikus dezakezunez, era askotara balia zaitezke irudiez. Sinboloen sorkuntzan ikasleek ere esku hartzen dute. Jane eta Viren esperimentzietatik ikasleenetarako saltoa irudiek errazten dute. Irudiei laguntzeko testua sortu ere egiten dute ikasleek, zeuk, galdera bidez, eman nahi diezun besteko gidaritzaz.

"Nora" eta "non" adierazteko geziek ikusmenezko kontzepzioa aurkezten dute, perifrasis bidezko azalpen gramatikalak baino eraginkorragoa; izan ere, honelako azalpenak jatorrizko hiztunen produkzioaren deskribapen-etarako egokiak dira, baina gure ikasleen mintzamen-ohiturak bultzatzen huts egiten dute.

Dedukzio-galderak egitea ere errazagoa gerta daiteke irudiak erabiliz. Arrainek neskei buruz zer sentitzen duten galdetzen badut, arrainen eta aurpegi irribarretsuaen irudietara salto egingo dute zure begiek. Garbi dago arrainei atsegingarria gertatzen zaiela egoera. Hain argi eta garbi nabaritutako al litzateke hau, "Arrainek neskei irribarre egiten diete" hitzak irakurritz bakarrik?

©
SKELETON 3



Goiko dedukzio-eztabaidaren ondorio gisa, irudiek hausnarketa sortzailea eragiten dutela ikus dezakezu eta, are garrantzitsuagoa dena, hausnarketa horren adierazpena.

Hedapena

Irudiek interpretazioa eskatzen dute. Hitz idatziek zoritxarrez itzulpena eskatzera bultzatzen dute. Hona hemen irudi-eskemen istorioak erabiltze-ko beste era batzuk:

1 Fotokopiatu 3. eskema (.2), 4 aldiz 12 ikasleko talde batentzat. Ebaki irudiak zeuk nahi bezalako multzotan eta utzi ikasleei, hirunaka, funtzio-natuko duen sekuentzian irudi horiek jartzen saia daitezen. Beren emaitzak konpara ditzakete gero. Istoria landu aurretik edo ondoren eragin diezaiekezu lan hau. Emaitzak edozein modutara dira interesgarriak.

2 Ikasleak 3. eskemaz familiarizatu direnean, begira diezaietela irudiei. Eta irudiei begira dauden bitartean, aldaturiko testu bat irakurriko diezu (esate baterako, "parkerantz doaz", "zoora" esan orde, etab.). Amaitzen duzunean, jarri ikasleak taldeka, eztabaida eta baieztatu ditzatela entzuniko aldaketak, apuntatu, eta elkarbanatu eta konparatu ikastalde osoan.

3 Irudiez baliatuz, praktika dezatela mintzamina etxean. Horrela hitz-jaritasuna garatzen da, eta ikasleak poztu egiten dira, material idatziarekiko menpekotasunik gabe, esateko gai direnaz.

4 Marraz dezatela ikasleek beren irudi-istorioa.

Itzultzailea: Iñaki Mendiguren

Oharrak

- * Ingelesezt "Useful skeletons!", *Practical English Teaching* (8. bol., 3. zenb., 1988.eko martxoko alea) aldizkarian argitaratua. Beraien baimenez itzulua eta berrargitaratua.

© Mary Glasgow Publications Ltd., London.

- 1 "The Skeleton System" lau liburukitako multzoa da, oinarritzko mailatik goikorraino doana, eta orain kaserekin Pilgrims Publications delakoak argitaratua. Materialari buruzko informaziorik nahi izanez gero, idatzi mesedez helbide honetara: Pilgrims Publications, c/o Editor, P.E.T.
- 2 Irudietan aldaketaren batzuk egin beharra dago

euskarari egokitzeke. Esate baterako, *bad time* (gaizki pasatu) eta *good time* (ongi pasatu) pozik edo triste dagoen erlojuaren bidez daude adierazita ingelesez. Bi kontzeptu horiek adierazteko aurpegi hutsa egokiagoa litzateke agian, guri kasu horretan erlojuak ez digulako ezer adierazten.

Bestalde, hirugarren irudi-eskeman ere zenbait aldaketa beharrezkoa da, euskarazko esaldiaren ordena eta ingelesezkoarena ez datozelako bat.

Autorea

William Chuckney-k USAn, Britainia Handian, Italian, Alemanian eta Grezian irakatsi izan du. Azken herrialde honetan bizi da orain.